



GAZTELEKUKO GOIZA PASA 2022

Kaixo lagun!

Irurako nerabeei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien gaztaroaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea dugu haur, nerabe eta gazte zerbitzuko helburu. Horregatik, 2021-2022 ikasturteari amaiera emateko gaztelekuko **goiza pasa** eskaintza aurkeztera gatoz.

Aurten, **2006-2010** urte bitartean jaiotako gazteek izango dute **uztailaren 4tik uztailaren 29ra** gauzatuko den goiza pasan matrikulatzeko aukera. Programazioari dagokionez, iaz ez bezala, nerabeak **egunka matrikulatuko dira**. Beraien interesen arabera, gustoko irteeretan edo/eta herriko jardueretan izena emanda.

Jakinarazi nahi dizuegu ere, kontziente garelako zerbitzu honek herriarentzat duen balioaz. Horregatik, udalak, ahal dituen baliabide ekonomiko eta pertsonal guztiak jartzen ditu zuen eskura. Hemen dituzue 2021eko uda aisialdia udaleku irekietako datu batzuk:


Parte hartzaile kopurua:	HAURRAK: 117	NERABEAK: 58
Udalak kontratatutako begirale kopurua:	BEGIRALEAK: 22	
Diru sarrerak eta gastuak:	SARRERAK: 8.702,43€	GASTUAK: 37.135,26€

Aurten, izen-ematea elektronikoki egin behar da www.irura.eus webguneko on-line tramiteak ataletik. Horretarako, sinadura elektronikoa beharko duzue, ez duzuenok BakQ-a eska dezakezue udaletxeko harreran (herritarrentzako identifikazio elektronikoa). Izen ematea egiteko edozein zailtasun izanez gero, zuen beharretara egongo gara kultura bulegoan egun eta ordutegi hauetan:

- Maiatzaren 2tik 6ra eta 9tik 12ra (09:00-13:00)
- Maiatzak 3, 5, 10 eta 12an (16:00-18:00)

Aipatu ere, udaletik zerbitzua normaltasunez antolatzen jarraituko dugula osasun neurriek bermatzen duten heinean.

Goiza pasan elkar ikusiko dugulakoan, aldezturik asko eta ondo izan.



OHARRA: Toda la información en castellano, en www.irura.eus, o llamando al 943 69 26 74 (09:00-13:00). Goiza pasari buruzko informazio gehiago, www.irura.eus web orrialdean.



Izena emateko epea:

Maiatzaren 2tik 12ra (biak barne) elektronikoki egingo da www.irura.eus webguneko on-line tramiteak ataletik.

Goiza pasako ordutegia:

URDINEZ DAUDEN EGUNAK 10:00etatik-17:00etara
HORIZ DAUDEN EGUNAK 10:00etatik 13:00etara
NARANJAZ DAUDEN EGUNAK 10:00etatik-17:00etara
 (Gaua pasatzera)

2022ko UZTAILA						
AL	AR	AZ	OG	OS	LR	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Ekintzak eta prezioak:

EKINTZAK ETA PREZIOAK		
07/05	HERNANIKO IGERILEKURA	10,00 €
07/06	HERRIAN JARDUERAK	5,00 €
07/07	LEITZARANGO ORIENTAZIO JOLASA	10,00 €
07/12	ASTEASUKO IGERILEKURA BIZIKLETAZ	8,00 €
07/13	HERRIAN JARDUERAK	5,00 €
07/14	ONDARRETAKO HONDARTZARA PADDLE SURF EGITERA *EZINBESTEKOA IGERIAN JAKITEA.	14 €
07/19	IGELDO-ORIO IBILALDIA	8,00 €
07/20	HERRIAN JARDUERAK	5,00 €
07/21	KLARA DONEA IRLARA	10,00 €
07/26-27	ARBIZUKO KANPINERA GAUA PASATZERA	40,00 €

Familia ugariaren agiria aurkezten dutenei %15eko hobaria aplikatuko zaie (izen ematearekin batera agiria bidaltzea beharrezkoa da). Seme-alaba bat baina gehiagok izena eman badute %10eko hobaria aplikatuko da (Beti ere gaztelekuko goiza pasan izena emanez gero, eta ez haurren goiza pasan). Hobari hauek bateragarriak dira.

Ekonomikoki egoera zailean dauden familietako kideak, gizarte zerbitzuetako hobari soziala eskuratzeko aukera izango dute izen emate formularioan eskaera egin eta gizarte langilearen agiria lortzen badute (RGIra lotua egongo da agiri hori). Hobaria lortuz gero, aurrez aipatutako murrizpenak aplikatu ondorengo kopuruaren %10 ordaindu ahal izango dute.

KOBRAKETA UDALAK EGINGO DU ZUEK BAIMENDUTAKO KONTU KORRONTETIK.

OHARRAK:

- ✓ IZEN EMATEAREKIN BATERA **OSASUN TXARTELAREN** KOPIA BIDALTZEA BEHARREZKO DA AURREZ AURKEZTU EZ DUTENEK.
- ✓ NERABEAK **BEHAR BEREZIREN BAT BADU** (DISLEXIA, ADIMEN URRITASUNA, JARRERA ARAZOAK, ALERGIAK, ETAB.), GARRANTZITSUA DA IZEN EMATERAKOAN BEHARREZKO ZEHAZTASUN GUZTIAK AZALTZEA NORBANAKOAREN ETA TALDEAREN ONURARAKO.
- ✓ EPEZ KANPO EKARRITAKO IZEN-EMATE ORRIAK **EZ DIRA ONARTUKO**.
- ✓ MATRIKULA EPEA AMAITU ONDOREN **EZ DA MATRIKULAREN DIRURIK ITZULIKO**, BALDIN ETA GAIXOTASUN EDO ISTRIPU LARRIAGATIK EZ BADA (MEDIKUAREN ZIURTAGIRIAREKIN).
- ✓ EKINTZETAN **GUTXIENEZ 10 LAGUNEK** PARTE HARTU BEHARKO DUTE TALDEA OSATZEKO ETA GEHIENEZ **55 LAGUNENTZAT** EGONGO DIRA PLAZAK. KOPURUA GAINDITUZ GERO, **IRURAN ERROLDATUTAKOEN LEHENTASUN OSOA DUTE**. KASU HONETAN UDALAK BALORATUKO DU DITUEN BALIABIDEEN ARABERA PLAZA KOPURUA AREAGOTZEKO AUKERA DUEN ALA EZ ETA EZEZKO KASUAN ZOZKETA EGINGO DA (MAIATZAREN 20AN). ALDIZ, JAKINARAZTEN DA, UZTAILAK 14 ETA 26-27KO IRTEERETAKO BEHIN BETIKO PLAZA KOPURUA **55** LAGUNEKOA DELA.
- ✓ EGURALDIA DELA ETA IRTEERA EGITEKO AUKERARIK EGONGO EZ BALITZ, HERRIAN GOIZA PASAKO ZERBITZUA IZANGO DUTE IRTEERAKO ORDUTEGIA MANTENDUZ ETA BERE KOSTUA 5€ IZANGO DA. ZERBITZU HAU IRTEERAN IZENA EMAN DUTEN GUZTIEK JASOKO DUTE ETA HONEN KOBRAKETA GAUZATUKO DA NAHIZ ETA EZ BERTARATU.

